

# **Euskarazko eskaintza**

## **Elgoibarren**



**Ainhoa Lendinez Garate**

### **Eskerrak**

Eskerrik asko Elgoibarko Udalaren Euskara Sailari, bertako teknikari nagusiari eta Soziolinguistika Klusterrari; lana amaitzeko izan diren oztopoak eta bestelakoak gorabehera, soziolinguistikaz eta Elgoibarko herriaz nuen ezagutza handitzeko aukera eman didatelako.



Elgoibarko udala



Soziolinguistika Klusterra

## **Aurkibidea**

Sarrera	3. orrialdea
1. Elgoibar herriaz	4. orrialdea
1.1. Ekonomia	5. orrialdea
1.2. Historia	6. orrialdea
1.3. Elgoibarko egoera soziolinguistikoaz	7. orrialdea
2. Ikerketako metodologia	11. orrialdea
2.1. Euskaini	13. orrialdea
2.2. Euskainiren sorrera	14. orrialdea
2.3. Euskainiren ezaugarriak	15. orrialdea
2.4. Euskainiren egitura	16. orrialdea
2.5. Ohiko datu jasoketa eta salbuespenak	19. orrialdea
2.6. Komunikazio motak	24. orrialdea
2.7. Ponderazioak	24. orrialdea
3. Elgoibarko neurketa	27. orrialdea
3.1. Neurketan jasotako datuak	29. orrialdea
3.1.1. Administrazioa	32. orrialdea
3.1.2. Osasungintza	33. orrialdea
3.1.3. Ekonomia	34. orrialdea
3.1.4. Gizartea	36. orrialdea
3.1.5. Hedabideak	38. orrialdea
3.1.6. Hezkuntza	39. orrialdea
4. Ondorioak	40. orrialdea
5. Bibliografia	41. orrialdea

## **Sarrera**

2008ko ekainean, Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak proposatuta, Elgoibarko euskarazko eskaintza aztertzeke proiektuan hasi nintzen lanean. Aurretik Enkarterriko Mankomunitatean Euskara Teknikari aritua nintzen eta bereziki interesgarria iruditu zitzaidan jaioterrian, azterketa soziolinguistikoa ardatz zuen proiektu batean parte hartzea. Bi helburu nituen: batetik, Elgoibarko euskarazko eskaintzaren berri jasotzea; eta bestetik, azterketa soziolinguistikoak egiteko oinarrizko ezagutza lortzea. Zinez saiatu naiz lana ongi egiten. Gogorra izan da, baina bi helburuak lortu ditudala esango nuke.

Udalak eskatuta, Euskara Sailak Elgoibarko euskarazko eskaintzaren errealitatea aztertu nahi zuen. Soziolinguistika Klusterrarekin jarri ziren harremanetan horretarako, eta lanerako hitzarmena sinatuta, teknikari aukeratu ninduten.

Arloz arlo, Elgoibarko euskarazko eskaintza osoa jasotzea izango zen nire zeregina. Soziolinguistika Klusterrak prestatutako Euskaini aplikazioa erabiliz, udal arlo guztien berri jaso behar nuen.

## **Elgoibar herriaz**

Gipuzkoako udalerrria da Elgoibar, Deba Behereko eskualdean, Deba ibaiaren ertzean kokatua. 2008an 11.058 biztanle zituen, 282 biztanle metro koadroko. Iparraldean Markina-Etxebarri eta Mendaro ditu mugakide; Ekialdean, berriz, Azkoitia; Hegoaldean, Bergara eta Soraluze ditu ondoz ondo; eta Mendebaldean, Eibar. Deba ibaiaren ahotik 13 kilometrora mendi malkartsuz inguratuta dago Elgoibar. Klima epeleko landaredia du; haritzak, pagoak eta gaztainak batez ere, baina horien kaltean gero eta ugariagoa da insignis pinua. Sare hidrografikoan Deba da ibai nagusia. Ibai horrek hegoaldeetik iparraldera zeharkatzen du herria, eta inguruko mendietako errekek bertan isurtzen dituzte urak.

## **Ekonomia**

Industria izan da Elgoibarko jarduera ekonomiko nagusia: metalurgia, erremintagintza eta ibilgailuentzako piezen fabrikazioa batez ere. Makina-erremintaren sektoreko enpresa asko ditu, eta “makina-erremintaren hiriburu” ere esan izan diote. Basogintza eta abeltzaintza (behiak eta ardiak) bigarren mailako jarduerak izan dira Elgoibarren. Lanean ari diren biztanleen ia bi heren bigarren sektorean aritzen dira, eta herenak baino gehixeago hirugarrenean.



## **Historia**

Egun Elgoibar herria dagoen lekuan, “Marquina de Suso y de Yuso” esaten zioten bailara zegoen antzina, Elgoibarko, Soraluze eta Eibarko lurretan. Elgoibar eta Soraluze Marquina de Yuso lurraldean zeuden; Eibar, berriz, Marquina de Suson. Pixkanaka herriak banatu eta nork bere mugak ezarri zituen.

XIV. mendean, Soraluze hiribildu bihurtu zen. Mende horretan, Marquina de Yuso lurraldean bizi zirenak mendietan sakabanatuta bizi ziren, lapurreten eta harrapaketen ondorioz. Jendea “Campo de Elgoibar” izeneko lurraldean bildu zen hiribildua egiteko. Lurralde hori “San Bartolome monasterioari” zegokion, eta erregearen jabetza zenez, Gaztelako errege Alfonso XI.ari egin zizkioten eskaerak. 1346. Urtean erregeak baimena eman zien “Campo de Elgoibar” lurretan herria egin eta harresiz inguratzeko. Hiribilduari “Villa Mayor de Marquina” izena jarri zioten.

XVI. mendetik aurrera, hazkunde demografiko nabarmena izan zen herrian. Eraikuntzan ere, urte horietan harria egurrari nagusitu zitzaion. Horren adibide, San Frantzisko komentua 1516an hasi ziren eraikitzen.

Horrez gain, industria siderurgikoak garrantzia handia izan du gure herrian, eta horren erakusgarri dira Lasaldeko eta Andikanoko burdinolak. Hain zuzen ere, 1335. urtean “Marquina de Suso” bailarako “Fuero de las ferrerías” forua eman zion hiribilduari Alfonso XI.a erregeak.





### **Elgoibarko egoera soziolinguistikoaz**

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak 2008ko ekainaren lehen astean egindako kale-neurketan jasotako datuei jarraituz, elgoibartarren %39,57k hitz egiten dute euskaraz herriko kaleetan. Zehazki, 9.379 elgoibartarren hizkuntza jokaera neurtu da.

<b>Urtea</b>	<b>Guztira</b>	<b>Euskaraz</b>	<b>%</b>
<b>2007</b>	8232	3590	43,6
<b>2008</b>	9379	3712	39,57

Adinari erreparatuz, emaitzak antzekoak dira ia urtero. Inguruko herrietan bezala, haurrek erabiltzen dute batez ere euskara (%52,9) eta helduek egiten dute gutxien.

<b>Eusk. %</b>	<b>Guztira</b>	<b>Haurrak</b>	<b>Gazteak</b>	<b>Helduak</b>	<b>Adinekoak</b>
	%39,57	%52,90	%43,31	%28,56	%41,37

Jolaslekuetan, familia giroan eta txikiteoan lortu dira emaitza onenak. Ondoren, ikasleen irteeretan, gazte giroan eta erosketetan hitz egiten da euskara gehien.

<b>Giroa</b>	<b>Ikasleak</b>	<b>Jolaslekuak</b>	<b>Erosketa</b>	<b>Familia</b>	<b>Gazteak</b>	<b>Txikiteoa</b>
<b>Eusk. %</b>	39,7	53,06	22,05	43,64	36,88	42,18

2001eko erroldan eta Soziolinguistika Klusterrak 2001ean egindako neurketetan jasotako datuak alderatuz, Elgoibarko eta Debabarreneko datuak parekoak dira. Izan ere, ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea handia da, erabileraren bilakaera motelagoa baita.

2001eko erroldan, 10.615 lagun bizi ziren Elgoibarren. EUSTATEk eginiko neurketaren arabera, 2 urtetik gorako biztanleak kontuan izanik, %60,9 dira euskaldunak, %12,86 ia euskaldunak, eta %26,21 gaztelaniadunak. (Herri bateko euskaldun kopurua neurtzerakoan euskaldunen kopuruari "ia euskaldunen" kopuruaren erdia ere gehitzen zaio, beraz, Elgoibarren biztanleen %67,33 dira euskaldunak).

Azkenik, biztanleen ama-hizkuntzari eta etxeko hizkuntzaren erabilerari buruzko datuak ere eman zituen EUSTATEk. Biztanleen %45,91k euskara dute ama hizkuntza; %45,97k gaztelania; %6,77k

gaztelania eta Euskara; eta 139 lagunek (%1,33) atzerriko beste hizkuntza bat dute ama hizkuntza.**Etxeko erabilerari dagokionez,** elgoibartar gehienek gaztelaniaz egiten dute etxean: %48,72k. %33,51k euskaraz hitz egiten dute etxean eta %17,18k euskaraz eta gaztelaniaz; azkenik, %0,57 beste hizkuntzaren batean mintzatzen dira etxean.

## **Ikerketako metodologia**

Esan bezala, Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak eta Soziolinguistika Klusterrak hitzordua sinatu zuten Euskaini aplikazioaren bitartez Elgoibarko euskarazko eskaintza aztertzeko.

Euskararen erabileran aurrera egingo bada, normalizazioa lortuko bada, ezinbestekoa da gaitasuna eta ezagutza handitzeaz gain, gizartean euskarazko eskaintza handitzea. Ildo horretan, zenbat eta euskarazko eskaintza handiagoa, orduan eta euskaraz bizitzeko aukera gehiago.

Euskal gizartea elebiduna da, eta horrek hizkuntza aberastasuna baino gehiago, hizkuntza nagusiaren menpe dagoen hizkuntza ahultzea dakar. Euskal gizartea elebiduna izanagatik, ordea, euskal gizarte herritar guztiak ez dira elebidunak, eta horrek areago zailtzen du gutxiengoan dagoen hizkuntza garatzea, euskara, alegia. Besteak beste, zerbitzuetako langileen lan-hizkuntza, kaleko errotuluen hizkuntza, idatzietako hizkuntza... horrek guztiak osatzen du gizartearen hizkuntza eskaintza, eta gizarte elebidunetan, eskaintza hori ez da bi eletan egoten ohi.

Ildo horretan, EUSKAINik ez du biztanleen erabilera, ezagutza edo gaitasuna neurtzen, udalerrri baten hizkuntza eskaintza aztertzen du.

## **Euskaini**

Euskaini euskarazko eskaintzaren adierazle-sistema da, euskarazko eskaintza publikoaren erradiografia indize batean laburtzen duena. SEI Elkartek sortu zuen Euskaini aplikazioa, Kataluniako Consorci per a la Normalització Lingüística-ko teknikariek sorturiko Ofercat adierazlean oinarrituta. Gizarteko hainbat sektoretan (administrazioan, ekonomian, komunikabideetan, hedabideetan, hezkuntzan, osasungintzan) jasotzen dugun hizkuntza eskaintza aztertzen du; hau da, herritarrek jasotzen duten hizkuntza errealitatearen zein proportzio dagoen aztergai dugun hizkuntzan, euskaraz, alegia (errotuluak, ahozko komunikazioa, idatziak).

Euskaini-ren bitartez, herri bateko hizkuntza eskaintza konplexua indize zehatzen bidez adieraz daiteke, eta ondorioz, errealitate horren bilakaera ere azter daiteke.

## **Euskainiren sorrera**

1999ko abenduan Eremu Urriko Hizkuntzen Nazioarteko VII. Biltzarra egin zen, eta bertan jaso zuen SEI elkarteak OFERCATen berri. Hain zuzen ere, hizkuntza baten eskaintza aztertzeke aplikazio horri interesgarri iritzi zion SEI elkarteak, eta euskarazko eskaintza aztertzeke erabilgarria izan zitekeelakoan, 2001ean OFERCAT oinarri hartuta Euskaini moldatzen hasi zen. OFERCATen sortzaileekin eta EHUrekin elkarlanean sortu zuen beraz SEIk EUSKAINI: Euskal Herriko udalerrietan EUSkara zenbat esKAINI ohi den neurtzeke adierazle-sistema.

## **Euskainiren ezaugarriak**

Euskarazko eskaintza neurtzeko, ordea, mugak jartzea ezinbestekoa da, ezinezkoa izango litzatekeelako enpresa eta erakunde guztiek sortzen dituzten dokumentu guztiak aztertzea. Ezinezkoa litzateke halaber, telefonozko harreman oro aztertzea. Horregatik, aztergaia mugatu eta elementuak aukeratu behar dira.

Ildo horretan, elementu adierazgarriak, iraunkorrak eta behatzeko modukoak aztertuko ditugu. Hautatutako elementuen bitartez jasotako errealitateak herritarrek jasotzen duten errealitatetik ahalik eta hurbilen egotea da helburua. Errealitate osoa aztertu gabe, errealitate hori ebaluatzeko indize zehatz bat emango digun tresna da Euskaini. Ikerketa behin baino gehiagotan eginez gero gainera, indize horien garapena ere aztertu ahal izango dugu.

## **Euskainiren egitura**

Euskaini adierazle-sistema bat da eta egitura konplexua du barnean. Emaitzak fidagarriak izan daitezen, aztertutako elementuak ordenatu eta aurrez ponderatu behar dira. Sektoreak, azpisektoreak eta komunikazio motak bereiziko ditugu. Hauxe da Euskainiren egitura orokorra:

EUSKAINI		
SEKTOREAK	AZPISEKTOREAK	KOMUNIKAZIO MOTA
Administrazioa	Udala eta mankomunitatea	- Errotulazio identifikatzailea - Errotulazio informatzailea - Idatzizko komunikazioa - Ahoz identifikatzeko hizkuntza - Ahoz egokitzeko hizkuntza
	Aldundia eta autonomikoa	
	Estatu administrazioa	
	Justizia administrazioa	
Ekonomia	Enpresak	
	Saltokiak, zerbitzuak, gainazal handiak	
	Publizitatea	
Gizartea	Kirol elkarteak	
	Kultur, aisialdi, erlijio eta gastronomia elkarteak	
	Politika, sindikatu eta gizarte mugimenduak	
Hedabideak	Idatzizkoak: egunkariak, aldizkariak	
	Ikus-entzunezkoak: irratia, telebista, Internet	
Hezkuntza	Arautua: publikoa, pribatua	
	Ez arautua	
Osasuna	Publikoa	
	Pribatua	

**Sektoreak** gizartearen arloak dira; **azpisektoreak**, berriz, sektore nagusien barneko taldeak. Datuak jasotzerakoan, bost **komunikazio**



**mota** bereizi ditugu eta horietan laburbiltzen da enpresa, erakunde eta bestelakoetan jasotako informazioa. **Idatzizko komunikazioan errotulazio identifikatzailea** eta **informatzailea** bereizi ditugu, ez daudelako beti hizkuntza berean idatzita. **Ahozko hizkuntzari** dagokionez, **harrera hizkuntza** eta **egokitzeko gaitasuna** bereizi ditugu. Harrera hizkuntza erakundea identifikatzen duena da, harrera egitean darabilen hizkuntza; egokitzeko hizkuntzan, berriz, erakunde horrek herritarren hizkuntzari egokitzeko gai diren aztertu dugu, hau da, herritarrak euskaraz eginez gero, erakundea euskaraz erantzuteko gai den.

Behatutako erakunde guztietan, ahalik eta komunikazio mota gehien aztertzea komeni da. Hala ere, gerta liteke zenbaitetan komunikazio mota batzuk aztertzeak zentzurik ez izatea (ikus-entzunezko hedabideetan, esaterako, errotulazioa).

Neurketa egiteko, ordea, indizeak behar ditugu, hizkuntza-kategoriak, alegia. 9 hizkuntza-kategoria erabili ditugu elementuak neurtzerakoan:

1. Euskaraz soilik
2. Euskaraz nagusiki
3. Euskaraz eta gaztelaniaz maila berean
4. Gaztelaniaz nagusiki
5. Gaztelaniaz soilik
6. Atzerriko hizkuntzan nagusiki
7. Atzerriko hizkuntzan soilik
8. Gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan
9. Anbibalentea
10. Erdia euskaraz eta erdia beste hizkuntza batean
11. Nagusiki euskaraz eta gainerakoa beste hizkuntza batean
12. Ez dago daturik

## **Ohiko datu jasoketa eta salbuespenak**

Neurketa egiterakoan, Administrazioan, Ekonomian, Gizartean, Hezkuntzan eta Osasunean koadroan jasotako komunikazio motak aztertu ditugu, hau da, OHIKO DATU JASOKETA erabili dugu. Hori izango da oinarritzkoa. Zenbait sektoretan, ordea, kontuan hartu beharreko salbuespenak ditugu.

Ekonomia atalean, Publizitatean esaterako, herritarrei etxeetara iristen zaien publizitatea zeinhizkuntzatan dagoen neurtu dugu. Herriko 2 postontzitan hilabete batean jasotako publizitatea bildu dugu. Atal honetan, beraz, ez dugu ohiko datu jasoketa erabili. Ez dugu jaso ez errotulazio identifikatzaileak, ez informatiborik, ez eta ahozko hizkuntzarik ere: azpisektore honetan bildutako informazioa "idatzizko komunikazioa" atalean bildu dugu.

Lehenik eta behin, zenbat publizitate (zenbat elementu) bildu ditugun zenbatu dugu, publizitate bakoitzaren orri kopurua eta informazioaren zein proportzio den euskaraz. Honela bereizi ditugu:

Jasotako publizitate elementuaren orri kopurua hiru multzotan sailkatu dugu: 1-2 orri, 3-4 orri eta 4 orritik gora.

Publizitate bakoitza zein hizkuntzatan dagoen deskribatzeko, ohiko kodeak erabili ditugu (1-12). Formula hau erabili dugu Euskara indizea ateratzeko: (orrien indizea x hizkuntza indizea) / orrien indizea.

Gizarte atalean ere izan da salbuespenik. Erlijio taldeak aztertzean esaterako, mezen hizkuntza jaso dugu ahoz identifikatzeko eta egokitzeko hizkuntzen atalean (telefono deirik ez). Herrian dauden erlijio elkarteak zerrendatu ditugu lehenik (elizak, parrokiak...) eta azpisektore honetako gainerako elkarteekin batera jarri. Mezak ematen dituzten elkarten (eliza, parrokia...) datuak betetzean, ahoz identifikatzeko hizkuntzaren datua lortzeko ez dugu telefono deirik egin, mezen hizkuntza hartu dugu kontuan. Asterozenbat meza izaten den galdetu dugu, eta horietatik zenbat izaten diren euskaraz, zenbat gaztelaniaz eta zenbat bi eletan. Ahoz egokitzeko hizkuntzaren atalean ere, mezen hizkuntzetik ateratako kode bera sartu dugu.

Horrez gain, zenbait erlijio elkartek ezdute inongo elizarik, eta ez dute mezarik ematen. Horiek gainerako elkarteak bezalaxe neurtu ditugu,

eta ahoz egokitzeko hizkuntza telefono deiak eginez jaso dugu.

Komunikabideak aztertzeko, bertako eta kanpoko komunikabideak bereizi ditugu. “Bertako” komunikabidez hartu ditugu herri edo bailarako aldizkari, egunkari, telebista eta bestelakoak. Komunikabide horiek kultur elkarteak ere izaten dira askotan, eta halakoetan, gizarte ataleko kultur elkarten zerrendan ere kontuan hartu ditugu, egoitzaren errotulazioa eta gainerako datuak jaso ahal izateko.

Horrez gain, kanpoko komunikabide batek herrian egoitza edo enpresa baldin badu, komunikabideen atalean ez ezik, ekonomia ataleko enpresen zerrendan ere kontuan hartu dugu.

Bertako eta kanpoko komunikabideei ponderazioan pisuezberdina eman diegu.

□ Idatzizko komunikabideak (kanpokoak): aldizkari eta egunkari irakurrienak aukeratu ditugu. Gehienez 10 egunkari eta 20 aldizkari. Herriko bi kioskotan izan gara, eta gehiengoz diren aldizkari eta egunkariak hautatu ditugu. Idatzizko komunikabideetan ez dugu ohiko datu jasoketa erabili. “Idatzizko komunikazioa” jaso dugu soilik, elementu hauek kontuan izanik: titulua (komunikabidearen izena), portada, eta egunkari edo aldizkariaren edukia. Hiru elementu

hauetan, informazioaren zein proportzio dagoen euskaraz aztertu dugu. Hizkuntza kategoriak erabili ditugu horretarako, baina euskaraz soilik edukien %10etik behera dutenak “gaztelaniazhutsez” daudela jaso dugu (5 kodea).

□Ikus-entzunezko komunikabideak neurtzean (kanpokoak) irratia, telebista, eta internet hartu ditugu kontuan. Atal honetan ere ez dugu ohiko datu jasoketa erabili;telebistan eta irratian ahoz identifikatzeko hizkuntza neurtu dugu eta Internet-i buruz idatzizko komunikazioa baino ez. Bertako -udalerriko eta bailarako- telebista eta irrati guztiak aztertu ditugu. Kanpokoak aukeratzeko CIESen audientzia ikerketetan oinarritu gara eta ikus-entzule gehien duten hedabideen urte osoko datu metatuak jaso ditugu. Emisio orduetan euskararen presentzia zenbatekoa den jaso dugu. Bi edo hiru hizkuntzatan lan egiten duten telebista eta irradien neurketa egiteko, programazio arduradunari eskatu diogu informazioa.

Internetarako, “kanpoko komunikabideen” inguruan, EUSTATEk argitaratzen duen “Informazioaren Gizarteraren Panorama” ikerketaren datuak erabili ditugu. Hiru hilabetero egiten den azterketa den arren, urte osoko datu metatuak erabili ditugu; aurreko urteko emaitzak, beraz.EAEko 15 urtetik gorako biztanleeiInternetzein

hizkuntzatan erabiltzen duten galdetzen zaie. Datu horietatik lurraldeka Interneteko euskararen erabilera indizea ateratzen da eta ondoren, Elgoibarko datua hautatu dugu. "Bertakoen" neurketa egiteko, berriz, herriko elkarte edo erakundeen webguneak hartu ditugu kontuan.

Hezkuntza arloan ohiko datu jasoketa erabili dugu baina ahozko neurketa egiterakoan, bi elementu neurtu ditugu: telefonoko arreta hizkuntza eta hezkuntza eredua (zein hizkuntzatan irakasten den). Telefonoko arreta hizkuntzan, identifikatzeko eta egokitzeko hizkuntza jaso ditugu. Hezkuntza ereduan, berriz bi atal bereizi ditugu:

-Hezkuntza arautuan, euskaraz (D), bi eletan (B) eta gaztelaniaz (A) zenbat talde daudenjaso dugu.

-Hezkuntza ez arautuan, berriz, hezkuntza jarduerak (eskolak, ikastaroak) zein hizkuntzatan egiten diren galdetu dugu.

Hizkuntza kodea lortzeko, formula hau erabili dugu hezkuntzan:(Taldea kop. x D) + (Taldea kop. x B) +(Taldea kop. x A) / taldea kopuru osoa

(Balioak: D: 1 / B: 0,5 / A: 0)

## **Komunikazio motak**

Ikus dezagun zehatzago, zein komunikazio mota aztertu ditugun:

- Errotulazio identifikatzailea erakundea identifikatzen duena da. Errotulazio finkoan, errotulu nagusiaren hizkuntza behatu dugu, eta bat baino gehiago badaude, lehen biak behatu ditugu.
- Errotulazioa informatzailea azalpenak emateko edo informatzeko jarrita dagoen errotulazioa da. Errotulazio finkoa eta kale paisaia behatu ditugu atal honetan. Errotulazio finkoa informatzeko eta argibideak emateko (ordutegia, aginduak, oharrak) errotuluak dira; kale paisaia, berriz, udalak herrian jartzen dituen errotuluek osatzen dute (kale izenak, trafiko seinaleak...).
- Komunikazio idatzietan erakundeek paperean nahiz euskarri informatikoan sortzen dituzten idatzizko testuak aztertu ditugu. Herritarrei begira hedapen handiena dutenak aukeratu ditugu eta hiru elementu mota bereizi ditugu:



- Idatzizko harremanetarako dokumentuak: eskaera orriak, fakturak...
  - Publizitate dokumentuak: kartelak...
  - Web orria.
- Ahoz identifikatzeko hizkuntza erakundeak herritarrekin komunikatzeko egiten duen lehen hitzean darabilen hizkuntza da. Komunikazio mota hau aztertzeko, telefono deiak egin ditugu, informazio eske, eta erakundeek halakoetan lehen hitza zein hizkuntzatan egiten duten jaso dugu. Erantzuna neutroa bada (a ver?, etab.) pixka batean zain geratuko gara, beste ezer esan arte. Erantzungailu automatikoak ere kontuan hartu ditugu. Hezkuntza arautuan eredu bakoitzean zenbat ikasle dauden neurtu dugu. Elizkizunak zein hizkuntzatan ematen diren ere bai, eta ikus-entzunezko komunikabideetan euskarazko eskaintza egunean zenbatekoa den aztertu dugu. Osasungintzari dagokionez, langile euskaldunen proportzioa jaso dugu.
- Ahoz egokitzeko hizkuntzan, herritarrek euskaraz egitean erakundeak egokitzeko darabilen hizkuntza jaso dugu. Telefono bidezko arreta hartu dugu kontuan horretarako

## **Ponderazioak**

Euskainiren indize nagusia ateratzeko erabili ditugun ponderazioak edo batez besteko pisuak azaltzea ezinbestekoa da, azpi adierazleen arteko loturak nola egin diren jakiteko. Izan ere, adierazle guztiei pisu bera ematea ez litzateke batere errealista izango, eta horrenbestez, sektore, azpisektore eta eragileen pisuak erralitatean dutenaren antzekoa izan behar du. Ponderazioak egiteko OFERCAT izan du Euskainik oinarrian, baina herri bakoitzeko errealitatearen arabera egokitu egiten dira ponderazioak.

Sektoreetan, gehienetan Ekonomiak du pisu handiena (%30) eta ondoren komunikabideek eta hezkuntzak. Azpisektoreetan, berriz, administrazioan esaterako, eraikin kopuruaren arabera sailkatu ditugu erakundeak. Ekonomian saltoki, industria eta publizitateak gizartean duten pisua hartu dugu kontuan eta komunikabideetan audientzien

bidez lortu ditugu ponderazioak. Azkenik, osasungintzan eta hezkuntza, zerbitzu bakoitza zenbatek eta zein maiztasunez erabiltzen duten hartu dugu kontuan.

### **Elgoibarko neurketa**

Elgoibarren herritarrek duten eskaintza neurtzeko, 400 erakunde baino gehiagotan jaso ditugu datuak. Erakunde horiek herritarrekin harremanetan jartzeko dituzten bideetan zein hizkuntza erabiltzen duten neurtu dugu horretarako eta guztira, 3.500 datu baino gehiago jaso ditugu.

Administrazio, gizarte, komunikabide, hezkuntza eta osasun arloetan, esaterako, herriko eskaintza osoari buruzkko datuak jaso dira. ekonomian, berriz, enpresa guztiak aztertzea ezinezkoa denez, errealitatearen adierazgarri den lagin bat hartu da aztergai. Lagina ahalik eta orekatuena izan da, eta orotariko erakundeak jasotzen saiatu gara, ala jardueraz nola langile kopuruaz.

Hauek dira sektore bakoitzean aztertu ditugun erakunde kopuruak:

<b>Sektorea</b>	<b>Azpisektorea</b>	<b>Aztertutako erakundeak</b>	<b>Guztira</b>
Administrazioa	Udala, mankomunitatea	13	18
	Forala, autonomikoa	3	
	Estatukoa	1	
	Justizia administrazioa	1	
Ekonomia	Enpresak	78	254
	Merkataritza, zerbitzuak	176	
	Publizitatea	20	
Gizartea	Kirola	16	60
	Kultura, aisia, erlijioa, gastronomia	39	
	Alderdi politikoak, sindikatuak	5	
Hedabideak	Bertakoak	1	56
	Kanpokoak	55	
Hezkuntza	Arautua	8	16
	Ez arautua	8	
Osasungintza	Publikoa	1	29
	Pribatua	27	
<b>GUZTIRA</b>			<b>376</b>

Neurketa egiteko, erakunde guztiei gutun bat eman zaie, teknikaria udalaren menpeko langilea dela eta proiektua zertan datzan azaltzeko.

Horrez gainera, erakunde guztiei eskerrak eman dizkiegu proiektua gauzatzeko datuak eman dizkigutelako.

Datuak jasotzeko, erakunde bakoitzeko datuak honelako fitxetan jaso ditugu:


Erakunde / taldea / enpresa: Etxepe			Zenbakia: /									
ERROTULAZIO	Lekua	Testua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A												
Ident-1	Kanpoko horma	Etxepe	X									
Ident-2	Kanpoko horma	Grandes mecanizados lan bereziak			X							

Inform-1	Makina ingurua, atea	Material harrera/recepcion material		X											
Inform-2	Atean	Bulegoa	X												
Inform-3	Atean	Kalitate saila	X												
	<b>IDATZIZKO Harr.</b>	<b>ELEMENTUA</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>	<b>9</b>	<b>10</b>			
	Harremanak	Albaranak, fakturak, aurrekontuak		X											
	Zabalkunde/publizit														
	Web orria	<a href="http://www.etxepe.com">www.etxepe.com</a>		X											

### Neurketan jasotako datuak

Datu guztiak jaso ostean, Elgoibarko euskarazko eskaintza orokorra 0,57koa da, Euskaini aplikazioaren indizeetan. Horrek erakusten du, maila orokorrean, Elgoibarko eskaintzaren erdia baino gehiago dela euskaraz, baina hala ere, nahiko juxtu gainditu duela muga hori.

## **Elgoibarko eskaintza orokorra**



■ Euskaraz

Datozen lerrootan, euskarazko eskaintza horren datuak atalez atal banakatzen saiatuko gara. Hauxe da Elgoibarko euskarazko eskaintzaren grafikoa sektoreka:



## **Administrazioa**




Aipaturiko euskarazko indize orokorra(0,57) nabarmen gainditu du administrazio sektoreak (0,83), eta bertan neurtu da euskarazko eskaintza handiena. Hori horrela, udalaren hizkuntza politikan euskarak garrantzia handi samarra duela ondorioztatu dugu. Zehazki, Bake Epaitegian langile batek ez daki euskaraz eta telefono deiei erantzuterakoan eta bestelakoetan, neurketaren datuak hobeak ez izatea eragin du horrek.



## **Osasungintza**

Osasungintzan, anbulatorioa da erakunde publiko bakarra, eta hizkuntza-paisaia nahiko zaindua izan arren, bertako langile batzuek euskaraz ez jakitea larria da oso. Horrek ahuldu egin du erakunde horren euskarazko eskaintza. Osasungintza pribatuan bestalde, egoera nahiko ezkorra da: dentista, podologia eta dietetika-zentroetan gaztelania nagusi da gehienetan, eta arlo honetan lan handia dago egiteko.




## **Ekonomia**

Euskarazko eskaintzaren indizea 0,48koa da Elgoibarko ekonomian, maila orokorreko indizetik behera dago beraz. Herriko enpresek pisu handia dute Elgoibarren, eta horien indizea 0,41ekoa da. Kontuan hartzekoa da enpresa mundua euskalduntzeko, Etxepe eta beste hainbat enpresa handik lan handia egin dutela, eta horretan buru-belarri ari direla. Baina hala ere, Elgoibarren kanpotar asko daude, eta gehienek enpresetan egiten dute lan. Hori horrela, enpresetan giroa oso erdalduna da oro har. Neurketa egiterakoan, askotan harreran ere ez digute euskaraz erantzun, eta hizkuntza-paisaia ere gainerako sektoreetan baino gutxiago ageri da euskaraz.

Publizitateari dagokionez, publizitatean jasotzen den eskaintza handiena gaztelaniaz da (0,36). Igorleak herrikoak nahiz kanpokoak izaten dira, eta horrek ahuldu egin du euskarazko eskaintza.

Ekonomia arloa utzi gabe, merkataritza eta zerbitzuen azpisektorean komertzioen indizea 0,54 da eta zerbitzuen 0,42. Ildo horretan, Elgoibarko Izarra Euskara Elkarteak lan handia egiten ari da Gurean Bai merkataritza kanpainaren bitartez Elgoibarko merkataritza euskalduntzeko. Euskara Teknikari batek orotariko laguntza eskaintzen

die saltoki, taberna eta bestelakoei, eskaintza euskaraz egiteko: kartelak egiteko, publizitatea eta bestelako oharrak jartzeko, menuak eta bestelakoak euskaratzeko... Horrez gain, hainbat ekintza egiten dira urte osoan, herritarrak saltokietan euskaraz egitera bultzatzeko. Egia esan, jasotako indizea gorabehera, herriko kaleetan euskara dexente entzuten dela ikusi dugu.




## **Gizartea**

Gizarte atalean, kultura, erlijio eta gastronomia elkarteen eskaintzari dagokion indizea 0,67 da. Atal honetan, kultur elkarte asko euskaraz aritzen direla ikusi dugu: Elgoibarko Izarra, Haritz Dantzari Taldea, etab. Erlijioan ere, parroko nagusia euskaldun petoa da eta euskararen aldeko jarrera du. Horrek ikaragarri laguntzen du mezak euskaraz ematerakoan, eta bestelako oharrak zabaltzerakoan. Gastronomia elkarteetan hartu dugu sorpresa txarrena. Asko eta asko euskaldunak dira, mendiko bailaretan daudenak batez ere, eta horietan ohar guztiak nagusiki euskaraz egoteaz gain, elkarteko arduraduna bera ere euskalduna da gehienetan. Alabaina, herriko hainbat elkarte oso gune erdaldunetan daude, atzerritar asko bizi diren auzoetan, eta horietan gaztelania hutsez bizi dira. Elkarte gastronomikoetan lan handia dago egiteko oraindik Elgoibarren.

Kirol taldeetan egoera nahiko euskalduna da. Oro har, talde gehienek dute ohar guztiak euskaraz nagusiki edo bi eletan zabaltzeko ohitura, eta talde horietako kide gehienak ere euskaraz egiten saiatzen dira. Hala ere, pilota eta mendi elkarteekin ez du zerikusirik futbolak esaterako: lehenengo horietan giroa oso da euskalduna, futboleant, berriz, nekez entzuten da euskara. Ildo horretan, udal kirol patronatuak


gero eta eskaintza aberats eta oparoagoa eskaintzen du eta herrian oso errotuta dago. Begirale eta sorosle gehienek euskaraz dakitela ikusi dugu, baina hala ere, arlo honetan aurrera egiteko, ezinbestekoa izango litzateke igerilekuan, kiroldegiko harreran eta bestelako ikastaroetan (spinning, gimnasioa, pilates, etab.) lanean aritzen diren begirale guztiek euskaraz jakitea.



Alderdi politikoen neurketa egiterakoan ere, eskaintzaren emaitza ez da oso ona izan. EAJ, EA, LAB, Ezker Batua eta Ezker Abertzaleko alderdien egoitzak eta kideak dira euskaldunenak. Oharrak, bilerak eta bestelako publizitate kontuak euskaraz edo bi eletan egiten dituzte horiek. Ez, ordea, PSOEk eta PPK, ezta UGT eta CCOOk ere. Azken horiek saiatu arren gaztelania dute lan-tresna nagusi eta horrek asko okertu du atal honen neurketaren azken emaitza.


## Hedabideak

Herriko gainerako sektoreak baino askoz indize txikiagoa lortu du hedabideen sektoreak: 0,27. Bertako hedabide nagusia Barren astekaria da, eta oso-osorik da euskaraz. Horrez gain, Internet atariak eta bestelakoak kontuan hartuz, bertako hedabideen indizea 0,78koa da. Argi ikus daiteke beraz, bertako hedabideak nagusiki euskarazkoak izan arren, herritar gehienek irakurtzen eta kontsumitzen dituzten hedabide gehienak kanpokoak direla eta horrek asko beheratu duela euskarazko eskaintzaren indizea.



## Hezkuntza

Azkenik, balorazio orokorra amaitzeko, hezkuntza arloan, euskarazko eskaintza 0,76koa da, arautua zein arautu gabekoa kontuan hartuta. Hezkuntza arautua oro har euskalduna da Elgoibarren (0,89): herri eskolan, ikastolan eta institutuetan euskarazko ereduak baitira nabarmen nagusi. Hezkuntza ez arautuan, berriz, eskaintzaren indizea baxuagoa da (0,56). Horien artean daude, besteak beste; hizkuntza-eskolak, auto-eskolak, eta bestelakoak.





## **Ondorioak**

Oro har, euskarazko eskaintza inguruko herrien antzekoa da Elgoibarren. Debarrena ez da Gipuzkoako eskualde euskaldunena, baina ezta erdaldunena ere. Alabaina, kanpotar asko bizi dira bertan eta industria sektoreak indar handia duela kontuan hartuta, gaztelania oso ohikoa da eguneroko bizimoduan, kalean.

Hala ere, Euskaini metodologiaren bitartez sektore guztietan eginiko azterketa zehatzak erakusten du, euskara indartzen ari dela herrian. Gizarte eta hezkuntza atala esaterako, osasuntsu daude Elgoibarren. Baita administrazioa ere. Arlo horietan, zerbitzu gehienak euskaraz jasotzeko aukera dute herritarrek. Hala ere, ekonomian, enpresetan batez ere, eta publizitatean esaterako, asko dago hobetzeko. Lan mundua euskalduntzeko planak martxan dituzte hainbat enpresak baina herrian industriaren garrantzia nolakoa den kontuan hartuta, euskara planetan murgilduta dauden lantokien kopurua oso txikia da proportzian. Hori horrela, udalak lehentasuna eman beharko lioke arlo horri, diru-laguntzen bitartez eta bestelako betebeharrak finkatuz, lan mundua euskalduntzen laguntzeko.

Ikuspegi orokor hori gorabehera, Elgoibarren lan handia dago egiteko euskararen alde arlo guztietan. Elkarte eta indar guztiek bat egin beharko lukete, euskararen bidean oinarri sendoak jarri ahal izateko.

### **Bibliografia**

- SEI Elkartea (2000):*Euskainieuskarazko eskaintzaren adierazlea. Neurketarako metodologia*. Argit. Gabea.
- Soziolinguistika klusterra: *EUSKAINI, Euskarazko Hizkuntzaren Adierazlea*

Elgoibarko datu soziolinguistikoak:

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Kultura Saila, Eusko Jaurlaritzak: *EAS, Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen sistema*
- Elgoibarko udala: [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org)
- EUSTAT (2001): *datu soziolinguistikoak*